



Luxemburgo, 2009ko urtarrilak 26

Gipuzkoako Foru Aldundial 200 milioiko mailegua sinatu du Inbertsioetako Europako Bankuarekin Donostiako 2. Ingurabidea finantzatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bidegi Azpiegituretako Gipuzkoako Agentziaren bidez, eta Inbertsioetako Europako Bankuak mailegu operazio garrantzitsu bat sinatu dute gaur, hartara Gipuzkoan eraikitzen ari den bide azpiegitura garrantzitsuenetako bat egoera bikainean finantzatzeko: Donostiako 2. ingurubidea.

Ekitaldian Markel Olano diputatu nagusia, Carlos Da Silva Costa bankuko lehendakariordea, Eneko Goia Bide Azpiegituretako diputatua, Pello González Ogasuneko eta Finantzetako diputatua eta Borja Jauregi Bidegiko zuzendari nagusia izan dira. Sinadura ekitaldia Inbertsioetako Europako Bankuaren egoitzan izan da, Luxenburgon.

Akordioari jarraituz, Europako Inbertsio Bankuak 200 milioi euroko mailegua emango du, Donostiako 2. ingurubidea finantzatzeko aldera. Mailegua 30 urterako eman da gehienez ere, gabealdiko 5 urteak barne, eta interesa aldakorra izango da, baina betiere Euriborraren azpitik. Eragiketa berri honi esker sendotuta gelditzen da Europako Inbertsio Bankuaren eta Bidegiren arteko lotura, bere garaian ere 300 milioi euroko mailegua sinatu baitzuten Eibar-Gasteiz (AP-1) autobidea finantzatzeko.

INBERTSIOETAKO EUROPAKO BANKUA

Inbertsioetako Europako Bankua da Europar Batasunean epe luzera finantzatzen duen erakundea, eta Europaren helburuen zerbitzura egiten du lan. 1957 sortu zen, eta EBko 27 estatuetan eta mundu osoko 130 herrialdetan aritzen da.

Garraiko Trans-Europear Sarea (TENs) garatzea oinarrizkoa da Europako merkatu bakarra sortzeko, baita Batasuneko herrialdeen arteko ekonomia eta gizarte kohesioa sendotzeko ere. Kontuan izanda sektore horretan egiten diren inbertsioak beti epe luzekoak izaten direla eta Europaren aurrerakuntzan rol garrantzitsua jokatzen dutela, Europako Inbertsioetako Bankuak Sare horiekin konpromiso garbia du, eta, horretarako, alor askoko mailegu politika garatzen ditu. Horien artean, nabarmentzekoa da ingurumenaren analisi sistematikoa eta horien trataera.

DONOSTIAKO BIGARREN INGURUBIDEA

Donostiako Bigarren ingurubidea autobide berri batek osatzen du, eta 17 kilometro luze da. Donostia hegoaldetik inguratuko du, eta Erreterian, Donostian, Astigarragan, Hernani, Lasarte-Orian eta Usurbilen barrena luzatuko da. Egungo saihezbidearen kanpoko ordezkoa izango da.

Saihezbidean sortzen diren trafiko arazoak direla eta, egunean 95.000 ibilgailu ibiltzen baitira bertan batez beste, beharrezkoa da Donostiako 2. ingurubidea eraikitzea, hartara Gipuzkoan barrena doan nazioarteko trafikoa bertara bidera dadin eta Donostiako sarrerak arindu daitezten.